

# PROYDE-PROEGA

## SUSTATU 29

# NON EGIN DUGU LAN?

---



GUATEMALA

BOLI KOSTA

TXAD

TOGO

ARGENTINA

LIBANO

# LANKIDETZA PROIEKTUAK

## AKWABA ETXEA

### *Boli Kosta*

Akwaba zentroak 2000. urtean ireki zituen atea, eta orduz geroztik kaleko haurrak hartzen ditu, mantenua eta heziketa eskainiz. Proegan haiekin lan egiten dugu sortu zenetik.

Proiektuan, Abidjaneko kaleetan bizi diren haur zaugarrien eskubideak bermatu nahi dira, gizarteratzea eta hezkuntza sustatuz, bertako ikastetxearen funtzionamendua bultzatuz, elikagaiak eta eskola-materiala erosiz. Horri esker, kalean egoera zaugarrian dauden mutilei eta auzoan egoera zaugarrian dauden neskatoei laguntza eta babesa ematen zaie, etorkizunerako hezkuntza-bidean jarraitzeko aukera emanez. Kale-egoerako 50 hurrek jasotzen dute etxeko barne-erregimena, 110 hurrek dituzte hezkuntza-laguntzak eta gizartean txertatzeko eta etorkizunerako onuragarriak diren aisialdiko eta denbora libreko jardueraz gozatzeko aukera dute. Horrela euren eskubideak babestuz.



# HECTOR VALDIVIESO IKASTETXEA

## Argentina

La Salleko Anaiak 2002an hasi ziren lanean Malvinas Argentinas herrian, Hector Valdivieso Ikastetxean. Proiektu honen azken fasea gauzatzen ari gara, proiektuari amaiera emateko. Proiektuaren helburua da praktika espezifikoetarako lau tailer-gela eraikitzea eta proiektu pedagogiko bat garatzea, pandemiaren ondorioei helduko diena eta eskola-bizikidetzarako akordioak sustatuko dituena, elkarrekotasunean eta genero-desberdintasunekiko errespetuan oinarritutako loturak berreraikitzearen garrantzia azpimarratuz. Emakumeek rol oso garrantzitsua izan baitute prozesu honetan, gizartean mutilentzako aurrekusiak diren tailerrak elektromekanika esaterako, emakumeei ere eskaintza eskainiz.



# GIZARTE ERALDAKETARAKO EKINTZAK

## ANDOAIN

Andoaingo ordezkartzan, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek Andoaingo Zaharren Egoitza bisitatzen dute, bertan bizi direnekin une bereziak partekatzeko. Oraingo honetan, aiton-amonei zuzendutako mezu xamurrez betetako postalak eraman zituzten, giroa maitasun keinuz eta belaunaldien arteko loturaz betez.

Etxean bizi diren pertsonengan eta ikasleengan eragin positiboa sortu zuten, enpatiaren, errespetuaren eta elkartasunaren balioari garrantzia emanaz.

Aiton-amonei desio onak eta zorionak adierazteko bitarteko gisa erabiltzen dira postalak, komunitate-loturak sendotuz eta elkar zaintzeko eta laguntzeko kultura sustatuz.




*Ezagutu gainontzeko ordezkartzetan egiten duguna*

# BIDEZKO MERKATARITZA



Proyde-Proegan Bidezko Merkataritza bultzatzen dugu hainbat jardueraren bitartez. Giza eskubideen, lan-eskubideen eta eskubide sozialen errespetua babesten dugu: soldata duinak, lan-baldintza egokiak eta seguruak, haurren esplotazioaren aurkako borroka eta genero-berdintasuna; bidezko praktikak: merkataritza-harreman egonkorak, askatasun sindikala, erabakiak hartzeko demokrazia eta inguru-menaren babesa, ekoizpen-teknika ekologikoen bidez eta ingurunea errespetatuz.

Gure ikastetxeak Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxearen Ziurtagiri Ofiziala lortzera animatzen ditugu eta ikastetxe horietan ikasleak sentsibilizatzeko jarduerak ere egiten ditugu.



Kartela



# SENTSIBILIZAZIO KANPAINA




Infografia



Ikasturteko kanpainaren goiburu motibagarria hau izan zen: "Lurra bizitza da. Zaindu dezagun!". Kanpaina lehorreko bizitzari lotutako problematikari buruzkoa izan da, Garapen Iraunkorreko 15. Helburuan (15. GIH) oinarrituta. Ekintza eta material ezberdinen bitartez prestatu da kanpaina.

Gure planetaren azalerarekiko kezka oinarritzat harturik, hainbat hildo landu dira. Basoak, basamortutzea, baso-soiltzea... fenomeno hauek guztiek biodibertsitatea mehatxatzen dute. Horretaz gain, pertsonen bizi-baldintzak degradatzen dituzte, haien biziraupena arriskuan jarriz edo duintasunik gabeko baldintzetan gaizki bizitzera kondenatuz.



Jolasa



# UDAKO BOLUNTARIOTZA

---

Uda honetan, boluntariotza-proiektuei ekin zaie berriro normaltasun osoz, pandemiaren ondorioak alde batera utziz. Proiektuetarako lau talde eta destino ezarri ziren. Honako hauek: Malvinas Argentinas (Argentina), Jujuy (Argentina), Trinidad (Bolivia) eta Akwaba (Boli Kosta).

Guztira, 12 boluntariok hartu dute parte proiektu horietan. Euren egonaldian hezkuntza, kirola, musika, jolasak eta salletar komunitateetako haurrentzako kultur jarduerak burutu dituzte.

Jarduera berezi hauek nabarmendu ditzakegu: Argentinako adineko pertsonentzako gimnasia ikastaroak, irakurketa eta antzerki ikastaroak Boliviako espetxe batean, eta Boli Kostako kanpamentu batean parte hartzea.

Proiektuak gorabeherarik gabe garatu ziren, eta boluntarioek eta tokian tokiko erakundeek pozik zeudela adierazi zuten.






# MEMORIA EKONOMIKOA

*Proyde-Proegaren datuak (Gipuzkoa, Bizkaia, Errioxa eta Zaragoza)*


## FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA

- Erakunde publikoak: 215.464,67 €
- Proega beraren funtsak: 129.164,62 €




## GASTUEN BANAKETA


- Sentsibilizazioa eta boluntariorza: 14.429,68 €
- Funtzionamendua: 38.797,57 €
- Proiektuen finantzaketa: 270.524,67 €



### PROEGA BERAREN FUNTSEN JATORRIA



### DIRU SARREREN BANAKETA GEOGRAFIKOA - FINANTZATUTAKO PROIEKTUAK-



MOTAK	FINANTZAKETA
Amaitutako lankidetzak proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	108.329,66€
Martxan dauden lankidetzak proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proega funtsekin	131.135,01€
Lankidetzak proiektuak Proegaren funtsekin bakarrik	26.500,00€
Sentsibilizazio proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	4.560,00€
<b>GUZTIRA</b>	<b>270.524,67€</b>

**Informazio ekonomiko zehatza eskura, hemen:**



# ONGILE EGIN edo DOHAINNTZA EMAN

Inprimatu orrialde hau edota gure webgunean sartu

Izen-abizenak: ..... NAN: .....

Helbidea: ..... Telefonoa: .....

Posta kodea: ..... Herria: ..... Probintzia: .....

## Ordainketa modua

Banku transferentzia **(ES29 2095 5010 34 1061863279)**

Bizum **02359**

Banku-helbideratzea

**Kontuaren titularra** .....

**Titularraren NAN** .....

**Kontu zenbakia** \_ \_ \_ \_ \_

### Aldizkakotasuna

- Urtero  
 Sei hilero  
 Hiru hilero

**KUOTA** ..... €

PROYDE-PROEGA Fundazioa da zure datu pertsonalen arduraduna, Fundazioarekin duzun lankidetzeta eta ondorengo harremana kudeatzeko. Banku-helbideratzearen aukera eskatzeko agiri hau sinatuta, espresuki baimena ematen diozu Fundazioari, bi aldeen arteko harremanak dirauten bitartean, zure laguntzaile-kuotaren ordainagiriak kobratzeko adierazitako kontuan eta mugarik gabe aurkez ditzan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere. Datuen Babesari buruzko informazio gehigarrian azaltzen den bezala; gure instalazioetan esaka dezakezu, edo helbide elektroniko honen bidez: proega@lasalle.es

Bidali mesedez agiria helbide honetara:  
PROYDE-PROEGA FUNDAZIOA  
Madalena Jauregiberri 2, 20014 DONOSTIA

TITULARRAREN SINADURA

<https://proyde-proega.org/nola-lagundu/>



## Nola lagundu? - Proyde - Proega

Bazkide egin Egin dohaintza Bizum-en bidez Dohaintzak ziurtatzea eskatu  
Bazkide egin Please enable JavaScript in your browser to complete this  
form.Nombre y apellidos / Izen abizenak \*FirstLastDNI / NAN: \*Dirección...

☆ Proyde /